

JAUNGOIKO - ZALE'N IDAZTIJAK

JOSU'REN BIJOTZ-DEUNARI

BEDERATZI-URUNA

ALBIZURI'TAR SERAPIN JAUPARIJAK EBIRA



Grijelmo-Alargun eta Semien irafkolan
Arbolantxa, 1.—Bilbao'n



M. 65854
F. 69777

AN
28241

JAUNGOIKO-ZALE'N IDAZTIJAK

JOSU'REN BIJOTZ-DEUNARI


BEDERATZI-URUNA

ALBIZURI'TAR SERAPIN JAUPARIJAK EGIÑA



Grijelmo-Alargun eta Semien irarkolan
Arbolantxa, 1.- Bilbao'n





Victoriae 21 Maii 1917.

Nihil obstat.

DR. PETRUS MENCHACA


Victoriae 22 Maii 1917.

Imprimatur.

Gubr. eccus. Dioces, S. V.

DR. JOSEPH LEONTIUS O. DE ZARATE

Sigillum.



Josu'ren Bijotz - Deuna'ri

BEDERATZI-URUNA

U A R À

Buruba ziñezmenez beterik eta bijotza maitasun aundijaz, belaunikotuta, lku'rtan edo Sakramentu Deunaren ala Josu'ren Bijotz Deunaren antzekijaren auñian, kurutz-ikuña egingo dozu ta bijotzetiko garbayaz, esango dozu: *Neure Josu-Kisto Jauna...* ta gero esazu dañazan otoyak.

O T O Y A

Neure Josu maitegarrijaren Bijotz Jaungoña, señetan Irukoitz edo Trinite Deunak ipiñi ebazan zerutiko eskañaren amai-

bako pilua: emodazu Zerofen antzeko bijotza ta bederatzi-urun onetan eskatzen dodan eskaña, Jaungoikuaren aintzarako, Zeu goratzeko ta neure goguaren onerako. Olantxe.

LENERGO EGUNEKO OTOYA

Neure Josu'ren Bijotz eztitsu ta Deun-Deuna, bijotz ligoñ eta epelak gurapen bixijaz ta suzko mañtasunagaz irabijau ta berotzen dozuzana! sutu ta eñe egizuz neuriaren leitasuna ta obenak. Ene Bijotz laztana: emodazu eskaña Zeure kaltez ez geyago irañik egiteko, ta bederatzi-urun onetan eskatzen dautzudan eskaña be, Jaunguaren aintzarako, Zeure gorapenerako, ta neure onerako. Olantxe.

(Orain iru Geure Aiña ta iru Agur Miren... Nekauste edo pasiñoeko iru ikuñtzaren Itxalgañijagaitik).

AIÑA GOIKUARI

Betiko aldijan zaran ene goiko Aiña, Bixitzea, Egija ta Bidia dan Josu'ren Bi-

jotzaren bidez Zeugana ertzen naz. Bijotz itxalgarí aonen bitáritez gur edo adorauegíten dautzut, gurtau etzaituben gixonaen orde. Maítetan zaut, maíte etzaitubenen orde. Ezautzen zaut, itxututa, euraen eíuz, ezautu gura etzaitubenen orde. Jaungoikozko Bijotz aonen urkazpidiaz, gura dot Zeu ezautu, maíte ta gurtau, Zeure andítasunari gixon gustijak dautsoen biafkunagaitik. Zeure Semiaren odol edeíagaz azkaturiko gogo gustijak opaltzen dautzudaz; eta Bijotz gozo Beraren bidez eskatzen dautzut Zeugana eratorí dagikezuzan eurak dan-danak. Neure Josu maítia gauígerotz, eurak ezautu dagijela egizu. Josu'ren alde bixi dedixala, egixu: Berau, ba, gustijaen alde il zan. Zeure Andítasunari, Bijotz-Done onekin, baíta, aurkezten datzadaz, Bazkun edo Kongregaziño onetako ta eíi onetako lagun gustijak, zeure eskaíaz euraen gogua bete dagixuzan, olan Bera Bijotz Jaungoikozkua euraen Zaintzale izan dedin, onetara Zeukin betiko aldijan egotia lortzeko. Olantxe.

(Orain bakotxak, ixilian, bial' daun eskaña eskatu begike).

JESUS'EN BIJOTZ DEUNARI

O T O Y A

Gixakume guztijak zeure odolagaz beferosi zenduzan Josu laztana, aona emen gu zeure (*ondi*) altara aurian auzpeztuta. Zeuriak gara, zeuriak ixan naidogu ta Zeugaz sendoruago batuta egon al-ixateko, Zeure Bijotz Deunari gaur gutariko bakotxa gogoz eskintzen yako. Askok, egiz, etzabe inoz be ezautu: beste asko, zeure agintzak ezetsi-ta, Zeugandik aldendu dira. Bitzuei eruki zakioe, Josu samuñá, ta guztijak ekañi egixuz zeure Bijotz Deunerantza. Bakaldun ixan zaite, Jauna, ez bakañik Zeugandik inoz be aldendu eztiran zintzoena, baita Zeu itxi zaituen seme-galduena be, ta aoneik zoritxañ eta gosez il ez-daitezán, egixu lasterñtxe biurtu daitezala guraso-etxera. Euren eretxi okeñez edo bijotz-asañez Zeugandik

ur̄in dabilzenen jaube egin zaite ta eka-
zuz bañiro egijaren kaira ta ziñestearen
batasunera, laster egin dedin artzain ba-
kañagaz artalde bakaña. Azkenez, zingien
zorginkeri ta guzur zañetan bixi diran guz-
tijak be zeugandu egixuz eta, belutu ba-
rik, ekañzuz ilunpetik Jaungoikuaren argi
ta agintzaperá. Zeure Elexiari emoyozu,
Jauna, sendotasunagaz askatasun osua,
er̄i guztijai bakezko atsedena; egixu luñ-
aren egal batetik bestera auxe abots ba-
kañ au entzun daitela: Gora, geure osasu-
na egin eban Jaungoiko-Bijotza; berari
amaibako egunetan andizuren eta aintza.
Amen.

AZKENGO OTOYA

Kisto'ren gogua ni donetu
Kisto'ren gorputza, ni gaizkatu
Kisto'ren odola, ni ase
Kisto'ren Bulañ-ura, ni garbitu.
Kisto'ren Nekauztia, ni indañtu
Neure Josu ona, entzun niri
Zeure zaurijetan ni jabon
Ez ni itxi Zeugandik aldentzen.

Areyo gaiztuatzaz, aldeztu ni
Nire erijotz-aldijan deitu niri
Eta Zeugana juateko agindu
Zeure Deunakin Zeu aintzatzeko.

Aldi-oro.

Olantxe.

Aña. Inproperium expectavit eor meum,
et miseriam; et sustinui qui simul contris-
taretur, et non fuit; et qui consolaretur, et
non inveni.

v. Discite a me quia mitis sun et humi-
lis corde.

r. Et invenietis requiem animabus ves-
tris.

O R E M U S

Domine Jesu, qui ineffabiles Cordis tui
divitias Ecclesiæ Sponsæ tuæ, singulari
dilectionis beneficio aperire dignatus es:
concede, propitius, ut gratiis cœlestibus
ex hoc dulcissimo fonte manantibus corda
nostra ditari ac recreari mereantur. Qui vi-
vis et regnas, Deus, in sæcula sæculo-
rum. Amen.

BIGAREN EGUNA

(Gustija lenengo egunian lez, darain au bakarik aldatuta.)

BIGAREN EGUNEKO OTOYA

¡Josu'ren Bijotz maitekofa. Zeruko atea; Zeure bidez ertzen gara Jaungoikuagana ta Jaungoikua geunaga etortzen da! Geure gurapen eta maitedun oyuak artu-egixuz, ba, Zeure bitartez zerutiko onetsijak eta eskañak jadetsi dagiguzan, Zeu maitatzeko ta Aita Goikuagana eltzeko. Gizonak egin dautzuezan irain eta atsekabiak ordezteko eskaña emodazu, Bijotz kutun orek: eta bederatzi-urrun onetan eskatzen dautsudana, be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapenerako ta neure goguaren onerako ba-da. Olantxe.

IRUGAREN EGUNERAKO OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz Deuna: Zeu zerutiko Bidia ta ur bixidun itufija zara! Zeu-

re bide artezaz jafaituten itxi dazu, donetu ta zerura eltzeko; Zeure benetako donetasun eta zaletasunezko ur gozo ta osasundunak edan dagidazala emodazu, olan ludi onetako gauzaren egañija asetuteko. Neure Bijotz laztana, emodazu eskaña, egin dautzubezan irain eta atsekabiak ordezteko ta bederatzi-urrun onetan eskatzen dautzudana, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen eta neure goguaeren onerako ba-da. Olantxe.

LAUGAREN EGUNEKO OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotza, donetasun gustija antzezten dan antzezki bixi-bixija! Laketu egidazu Zeu ikusten oso-osoro, neure bijotza olan artezteko Zeurera, ta neure gogapen, itz eta egikintzak Zeure otoyakin bat-egiteko. Bijotz laztantzuba, urkazpidia emodazu, eurakaz neure irain eta atsekabiak ordezteko; eta bederatzi-urrun onetan eskatzen dautzudana, be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen

eta neure goguaren onerako ba-da. Olan-
txe.

BOSKAREN EGUNEKO OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz eztitsuba, Irukoitz
Itxalgaríjaren Autija; Zugaitik geure egi-
kintzak donetuten dira! Nik opaltzen dau-
tzudaz neuriak, uts asko eurak euki a-
ren, Zeuk obatuta, Jaungoikuaren beta-
urían argarítzat agerítu dedikezan. Neure
Bijotz laztana, eska-
ra emodazu, eurakaz neure
irain eta atsekabiak ordezteko; eta bede-
ratzi-uríun onetan eskatzen dautzudana,
Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen
eta neure goguaren onerako ba-da. Olan-
txe.

SEIGAREN EGUNEKO OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz zabala ta etxe-
deuna, Zugan neure gogo gustijetaz, al-
men eta sentzunaetaz agintzen dautzazu
bixíteko! Eskarik, asko, etxe-deun eder

onetan idoro dodan abegi, atsegin eta pozagaitik. Bertan aldi oro atsedengo naz. Bijotz maitia, emodazu eskaña, eurakaz neure irain eta atsekabiak ordezteko, eta bederatzi-urfun onetan eskatzen dautzudana, be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen eta neure goguaren onerako bada. Olantxe.

SASPIGAREN EGUNEKO OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz Erukitsuba, Jaungoiko-Jauparija, Zeugaitik Goiko Aiteak abindu eban zeure otoyak entzungo euzala: *Bijotz augaitik dantzut, eta eskatzen daustasun dana jadetsiko dozu!* Neure Josu ona, Zeure Bijotzaz batera, neure eskari gustijak Zeure Aiteari aurkezten dautzadaz, neure guraen sarija lortzeko. Bijotz laztana, emodazu eskaña eurakaz neure irain eta atsekabiak ordezteko; eta bederatzi-urfun onetan eskatzen dautzudana, be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen eta neure goguaren onerako bada. Olantxe.

ZORTZIGAREN EGUNeko OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz maitekoña, suzko ta argizko Bakaldun (edo Erege), gixonaen maitasunan sutuba, gixonok, Zeukin alkañtuta sutau gura dozuzana! Nik be, gura dot bixi, beti, Jaungoiko-maitasunean, beraren su-gañetan ere; olan ludi gustija ixiotuteko, maitekoña ixan dedin. Bijotz laztantzuba, emodazu eskaña eura-kaz neure irain eta atsekabiak ordezteko; eta bederatzi-urfun onetan eskatzen dauzudana be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen eta neure goguaren onerako ba-da. Olantxe.

BEDERATZIGAREN EGUNeko OTOYA

¡Ene Josu'ren Bijotz nekeduna, kuru-tzeaz, arantzezko burestunez, eta azta-makilearen bulañeko zaurijaz, Zeure eruapen eta maitasuna antzeztu gura izan zenduan; olan geure gogortasuna zamur-

tuteko ta jakin-erazoteko, zelako maĩtasunaz nekaĩtu euzan ainbat neke, min, oĩaze geu gaizkatzeko. Bijotz maiteko-ĩa, emodazu eskaĩa, eurakaz neure irain eta atsekabiak ordezteko, eta bederatzi-urun onetan eskatzen dautzudana be, Jaungoikuaren aintzarako, Zeure gorapen eta neure goguaren onerako ba-da. Olan-txe.



